



Sebastian Letemendia sokan

Euskal jatorriko abenturazale argentinarra

«Lagunekin esperientziak partekatzea da garrantzitsuen»

Bidaiatzea lagun berriak egiteko modu egokia da, eta kontinenteetako sakonuneetara egin dugun Pangea espedizioaren bitartez, lagun aparta ezagutu dugu: Sebastian Letemendia mendizale eta abenturazale argentinarra. Aste Santuko egun hauetan bere airbasoen herria ezagutzera etorria zela, Argentinan erdizka utzitako elkarrizketa osatu dugu.

Joxemi Saizar - Tolosa


Eguberrietan ezagutu genuen, Buenos Airesen, Sebastian Letemendia, Xabier Lopez-Mendizabal tolosarrak haren berri eman eta gero. Mendia eta beste kirol batzuk praktikatzeko zituela eta liburu batzuk argitaratuak zituela aurreratu zigun. Bere lantokian elkartu (telekomunikazio enpresa bat, zientzia ekonomikoak ikasi zituen EEBBetan) eta elkarrizketa labur batean berehala konektatu genuela esan daiteke. Esperientzia eta kontu ugari trukatu genituen eta berak bere bi liburu oparitu zizkigun: *Apuntes de travesía* eta *Altos en el camino*. Aurretik windsurfeko gidaliburu bat ere idatzia zuen. Bere ahotik eta liburu horietatik jakin genuen Sebastianek, mendiaz gain, eskalada, eskia, kayaka, bela, urpekaritza eta paraxutismoa ere egiten dituela eta kontinente guztietako mendi, ibai eta itsasoak ezagutu dituela. Aste Santuan lehen aldiz Euskal Herrira bere airbasoen herria ezagutzera zetoarela aurreratu zigun, eta egunotan lasaia egoteko astia hartu dugu.

Birraitona Bidaniakoa izanik, Goiatzen egun pare bat pasatzeko aukera ez dute baztertu Sebastianek eta bere emazte Anak. Aitona eta aita argentinarrak izan arren, euskal kulturarekin harremana ez dute eten. Emaztearen bi amonak ere euskaldunak ziren, Aburuza eta Garde abizenekoak. Mendiari esker, lagun euskaldun batzuk ere egin dituzte, Juanjo San Sebastian eta *Al filo de lo imposible* programako beste zenbait, adibidez.

Gosea, hotza eta logalea

«Gurasoek Bariloche askotan bisitatzen zuten, Patagoni iparrean. Mendira zoazenean oinez hasten zara, hemen Euskal Herrian bezala, inguruko mendixketan. Mendi giroan sartzen hasten zara, paretak eta harkaitzak topatzen hasten zara. Hortik eskalatzerako pauso motza dago. Mendi giroa gustatzen bazaizu, eskalada mendiak duen alderik ederrena eta osatuena da», dio hastapenez galdetuta.

«Eskalada alpinoa gustatzen bazaizu, hotzak, logaleak edo goseak jota egongo zara noizbait»



Serioxeago 17 urterekin hasi zen Bariloche inguruan, eta lehen mendi ederra Tronador Haitza izan zen, izotz kaskote handi bat, Txile eta Argentina arteko mugan. Hurrengo urtean Patagoniara joan zen, Fitz Royko orratzetara, Sebas de la Cruzekin. Han euskaldunen zirkulua ezagutzen hasi zen 1985ean. Gero Aconcagua, Peru, Yosemite, Alaska... etorri ziren. Aurrerago Nepal, Pakistan, Himalaya, Suitza eta Zairen ere izan da. Zeharkaldiko eskia ere egin du leku horietan, Andean garraiobide hori leku ezkutuetara iristeko egokiena delako.

Mendi giroaren irekitasuna aipatu digu. «Jarduera hau ez dago oso zabaldua, horregatik elkartzen zara gehiago zaleen talde txiki horietan. Herriartasun eta lanbide desberdinetako lagunak egiten dituzu. Gainera, aire libreko jarduerak hauetan parte hartzen dutenek anarkismo puntua dute, denak kontestatarioak dira; bestela golfean arituko ziren», esan digu. Eskaladari buruz lagun baten esaldi polita aipatu digu: «Ez bazara hotzak

egon, bizkar zorroan arropa asko zenuelako izango zen; ez bazara goseak egon, kanpamentutik askorik ez zinelako urrutiratu; ez bazara logaleak egon, bibak interesgarriak ez zenuelako izan. Eskalada alpinoa gustatzen bazaizu, goseak, hotzak eta logaleak egongo zara noizbait».

Bizitza eta uraren zikloa

Sebastianek aire librean egiten den bizitza uraren zikloarekin konparatzen du: «Gaztetan mendira zoaz, han hasten da uraren zikloa, elurra, euria eta izotza; denbora pasatzen den neurrian, ibaira bihurtzen zara eta kayakez ibiltzen zara; eta geroago ibaia itsasoan bukatzen da, bela hartu eta nabigatu egiten duzu». Bizi egoera aldatu (seme bat du eta beste bat espero du) eta denbora pasatzearekin batera, jarduerak berriak ezagutuz joan zen, espiritua aldatu gabe. «Erakargarria zailgunarekin jolasteko eta gozatzen jarraitzeko tresnak aldatzen dira», dio Letemendiak. Hala, kayakez ibiltzen ikasi

zuen: «Naturara hurbiltzeko modu interesgarria».

Bere esperientziak besteei jakinarazteari garrantzia eman dio beti Sebastianek. Idaztea eta argazkiak ateratzea asko gustatzen zaio. Gai desberdinetako aldizkarietan (nautika, mendia, orokorrak) idazten du Argentina eta EEBBetan. Hurrengo pausoa liburuak idaztea izan zen. Lehena munduan zehar ezagututako lekuekin osatu zuen, eta bigarrena etxetik gertuago bizi izandako esperientziekin. Bere argazkiek leku horietako hunkipena sortzen dutela esaten du Galen Rowell argazkilari entzutetsuak hitzaurrean.

Aurrera begira asmoz betea du burua, baina epe laburrean eta etxetik gertu betetzeko, ahal bada. Euskal Herria pixka bat ezagutu ondoren (asko gustatu zaizkie kostaldeak eta mendialdeak), aukera horiek eskura ditugula dio. «Ez naiz kirolari ona ezertan, baina denetan ondo moldatzen saiatzen naiz, alternatiba guztiak edukitzeko eta lagunekin zerbait partekatu ahal izateko» esan digu.



Joxemi Saizar